

**THE WONDER • Erresuma Batua - Irlanda**

Sebastián Lelio (zuzendaria eta gidoilaria)  
Kila Lord Cassidy (aktorea)  
Matthew Herbert (konpositorea)

SERGIO BASURKO

Irlandako Midlands eskualdea, 1862. Neskato batek jateari utzi dio, baina bizirik eta egoera onean dago, miera badirodu ere. Lib Wright erizain ingelesa herri txiki batera eraman du-te Anna O'Donnell hamaika urteko neska behatzera. Turista eta erromes ugari biltzen dira hainbat hilabetean ezer jan gabe bizirik iraun duen neskatoa ikustera. "Zeruko manarekin bizirik irauten duen santu" bat al dago herrian? Aitzitik, fenomeno horren arrazoiak gaiztoagoak al dira? XIX. mendeko neska barautzaileen feno-menoan inspiratutako thriller psiko-logikoa ikusi dugu gaur Ofizialean.

Sebastian Leliok mende hasieran *La sagrada familia* filmarekin bisitatu zuen lehenengo Zinemaldia. Geroztik, besteak beste, Txilerentzat historikoa izan zen *Una mujer fantástica* filmarekin ingelesez besteko film onenaren Oscar saria irabazi zuen. Arunet, Donostiara itzuli da Netflixek ekoiztutako *The Wonder* lanarekin.

Urrezko Maskorra eskuratzeko lehian lehen aldiz parte hartzen duen filmaileko, Emma Donoghue idazlearen eleberrian oinarritu da Lelio, eta Florence Pugh aiurri ahaltuko antzezlea aukeratu du protagonista, XIX. mendeko erizain ingeles bat haragitz, lau hilabete jan gabe daraman neskato baten kasua ikertzeko kontratatu. Aktore-zerrendan Pughek, besteak beste, Ciarán Hinds, Tom Burke eta Toby Jones aktore bikain askoak ditu lagun. Horiek batera, Anna neskatoaren papera betetzen duen Kila Lord Cassidy, eta fikzioan bere amarena egiten duen bere benetako ama, Elaine Cassidy, aktore irlandarra.

*The Wonder* ikus-jolas batekin hasten da eta berdin amaitzen da, ikusleari "istoriorik gabe ez gara ezer" gogoraraziz eta film baten aurrean gaudela ahaztuko dugula iragarriz. Leliok bere filmaz adierazi duenez,

# Zientziaren eta fanatismo erlijiosoaren arteko talka



Sebastián Lelio zuzendari txiletarra eta Kila Lord Cassidy aktore errebelazioa.

JORGE FUEMBUENA

## Storytelling in post-famine Ireland

Seventeen years after his first visit to the Film Festival, Oscar-winning Chilean director Sebastián Lelio is back here again to compete for the Golden Shell with *The Wonder*, a psychological drama set in the Irish Midland in 1862, when an English nurse comes to a small town to investigate how a young girl has been able to fast for months without any apparent ill effects.

Lelio explained that apart from the issues that it dealt with such as the clash between the belief systems of science and faith, the film also

addresses the mechanisms of fiction itself and reminds us that without stories we are nothing. "Everything is storytelling, not just entertainment, but also politics, and in this case what makes the film urgently contemporary is the role that storytelling plays in it." On the one hand, there is the nurse who has doubts and is ready to adapt to what others think, and on the other, people who have found an absolute truth and stick to it come what may. He stresses that he is not saying no to faith, but he is against fanaticism and rigid thinking.

"zientziaren eta pentsamendu magikoaren edo zientziaren eta fedearen arteko talka" proposatzen du.

Errealizadore txiletarraren arabera, "kontakizun oro ez da entretenimendua bakarrik, politika ere bida". Kasu honetan politika hori bi jarrerei dagozkie, "egia aurkitzeko beste batzuek pentsatzen dutenera egokitzeo prest dagoen erizainarena eta egia jabe direla eta aldatu ezinezko usteak dituztenena. Horra fanatismoa. Ez dut esaten fedea fanatismoaren sinonimoa denik, zu-runtasunarena baizik".

Kila Lord Cassidy da Anna, 'neska miragarria'. Prentsaren aurrean egindako agerraldian azaldu due-nez, amak liburua irakurri zuen eta berehalako komentatu zion agenteari bere alaba ezin hobea zela paper horretarako. Denbora pasa zen, eta azkanean proiektatua mamitu zenean bertan parte hartzeko deitu zioten. "Ez daukagu komunean asko, bera oso erlijiosoa delako eta mina izan duelako, baina pertsonaiarekin konektatuta sentitzen nintzen". Filmatzean oso ondo pasatu zuela dio, nahiz eta intentsitate handiko eszena batzuek aparteko ahalegina eskatu zioten. Zehazki, horietako batek baraualdi luzearen arrazoiak azaltzen dituenean, "oso sekuentzia luzea zen, eta egoera emozional desberdinatik igarotzea eskatzen zuen". Egun horretan 12 urte betetzeak lagundu zion, eta oso hunkituta zegoen taldearen aldetik jaso zituen zorionak ikusita.

Musikak funtseko papera betetzen du pelikulan, beste pertsonai bat bihurtu arte. Matthew Herbert musikagileak azaldu duenez, irlandar instrumentuak erabili zituen "baina horien doinua berrasmatu egin dugu" soinu-bandari beldurrezko ukituan eransteke, askotan musikak aurrea hartzen dio kontakizunari irudietan datorrena azpimarratzeko eta "perkusioak pertsonaiak nola sentitzen diren ikusarazten du".

# ZINEMAREN HIRU ALDIEN ESKOLA

LA ESCUELA  
DE LOS TRES  
TIEMPOS DEL  
CINE

THE SCHOOL  
OF THE THREE  
TENSES OF  
CINEMA

Ikerkuntza, gogoeta eta  
esperimentazio zinematografiako nazioarteko zentroa.  
Hiru graduondoko ikasketak:

Centro internacional para la  
investigación, el pensamiento  
y la experimentación cinematográfica. Tres estudios de  
postgrado:

International centre for  
research, thought, and film  
experimentation. Three postgraduate studies:

01 Artxiboa  
Archivo  
Film preservation

02 Komisariotza  
Comisariado  
Film curating

03 Sorkuntza  
Creación  
Filmmaking